Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

"FAMILIA OLA" IRUNGO UDALAK FAMILIA BIDEZKO EUSKARAREN TRANSMISIOA SUSTATZEKO ZERBITZUA

2026ZAUN0068

Euskara arloak, txosten ekonomikoa eskatu du **"FAMILIA OLA"** programaren kontratazioa aurrera atera ahal izateko,

1. **SARRERA**

Erabilera eta elkarreragina ardatzak eta eskolaz kanpoko ekosistema euskaldunagoa lortzeko asmoa kontuan hartuta, familia bidezko euskararen transmisioa sustatzeko helburua betetzeko **FamiliaOla Zerbitzu** Eskaintza aurreikusita dago. Egin beharreko lanetan ondorengoak daude:

- Gurasoak informatzeko ekimenak
- Familientzako mintzaguneak

2. KOSTUAK

- **Orduak:**

Kosteak kalkulatzeko kontuan izan da: Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako IV. Lan Hitzarmena, III. Taldea.

· **Gurasoak informatzeko ekimena**: FAMILIAOLA ZERBITZU ESKAINTZAren inguruan 10-15 minutu inguruko aurkezpen ludikoa egingo du ikastetxeetako guraso bileretan parte hartuz. Gehienez, 25 bilera egitea aurreikusten da.

· **Familientzako mintzaguneak**: tailer edota irteerak hiru urte-sasoitan eskeiniko ditu. Enpresa esleipendunak urte-sasoi bakoitzean gutxienez 4 tailer eta irteera bat antolatuko ditu. Tailerrak astegunetan izango dira 17:30etik 19:00etara eta irteera larunbat goizetan 10:00etatik 13:00etara. Garraioa familien kontura joango da eta horretarako denbora ez dago zehaztutako ordutegi horren barruan. Dena dela, udalak egoki baderitzo, eta enpresa esleipendunarekin adostuta, aipatutako eskaintza, 4 tailer eta irteera bat, zabaldu ahalko da tailer edo irteera gehiago eskaintzeko.

Tailer bakoitzean gehienez 30 lagun izango dira. Irteeretan berriz, gehienez 60 lagun izango dira; irteeraren ezaugarrien arabera, partehartzaileak 2 taldetan banatu daitezke.

Enpresa esleipendunak taldeko bi hezitzaile aurkeztu beharko du.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: FRUE-4MP0-PLRU-APPT

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Irati Tranche Otxandorena ECONOMISTA (05/10/2026 12:17 CEST)

1.Taula: Beharrezko Orduak

	HEZITZAILEAK	KOPURUA	IRAUPENA	PRESTAKETA/ ANTOLAKETA ORDUAK	ORDU BEHARRA GUZTIRA	JARDUNALDI %
BILERAK	2	25	0,25	0,5	37,5	2,36%
TAILERRAK	2	12	1,5	3,5	120	7,54%
IRTEERAK	2	3	3	3	36	2,26%

- **Soldatak**

Aipatutako hitzarmenean, urteko orduak 1.592 izango dira, eta 2025eko soldata taulak hartuko dira oinarritzat. Egoera ekonomikoa dela eta, 2026rako, 2027rako eta 2028rako %2,9, %3,3 eta%2,7ko igoerak kontuan izango ditugu, hurrenez-hurren, gainera gizarte-segurantzako kuota %32,10 izango da.
Kontuan izan behar da absentismoa, %10, kopuru horretatik enpresaren ardura %60 izango da.

2.Taula: Soldatak

CATEGORIA	2026ko soldata	2027ko soldata	2028ko soldata	Bataz - besteko soldaa	Gizarte segurantza	SOLDATA KOSTUA	ABSENTISMO GASTUAK	SOLDATA-KOSTUAK, GUZTIRA
GRUPO III	30.916,14	31.936,37	32.798,65	32.053,76	10.289,26	42.343,01	2.540,58	44.883,60

Gainera kontratua aurrera eramateko ezinbestekoa dira ekimen bereziak egiteko gastu batzuk.
Zerbitzuaren kudeatzeko gastuak %15 izango dira.
Kontratuak bi ekitaldi iraungo ditu.
Ekimenak aurrera eramateko kontuan hartuko ditugu 3.000 €, material-gastuak.

3.Taula: Kostuak

	BILERA	TAILERRAK	IRTEERAK	GUZTIRA
hezitzaileen soldatak	1.057,25	3.383,19	1.014,96	5.455,40
Material gastuak		2.000,00	1.000,00	3.000,00
Koste zuzenak	1.057,25	5.383,19	2.014,96	8.455,40
Kudeaketa - gastuak (15%)	158,59	807,48	302,24	1.268,31
Mozkinak (6%)	63,44	322,99	120,90	507,33
ERABATEKO KOSTUA	**1.279,28**	**8.513,66**	**3.438,10**	**13.231,04**
Prezio itxia				11.951,76
UNITATEKO KOSTUA	**51,17**	**709,47**	**1.146,03**	

3. KONTRATAZIORAKO PARAMETROAK

Enpresa esleipendunak urte-sasoi bakoitzean gutxienez 4 tailer eta irteera bat antolatuko ditu. Oinarrizko edo beharrezko zerbitzua denez, prezio itxi bezala planteatu da.

Horrez gain, kurtso hasieran bilerak egingo dira, gehienez 25. Datu zehatzik ez dagoenez, unitate preziotan definitu da, eta bileren kopuruen arabera ordainduko da.

Horrez gain, udalak egoki baderitzo, eta enpresa esleipendunarekin adostuta, aipatutako eskaintza, zabaldu ahalko da tailer edo irteera gehiago eskaintzeko. Horregatik, aukerako tailer eta irteera hauek, prezio unitateetan zehaztu dira.

4.Taula: Lizitazio tipoak

	Lizitazio tipoak	Kostua	Kostua (BEZarekin)
Prezio itxia	3 garaitan, 4 tailer eta irteera bat	11.951,76	13.146,94
Prezioa unitateko	Bilera	51,17	56,29
	Tailer aukerak	709,47	780,42
	Irteera aukerak	1.146,03	1.260,63

Aurreko informazioa kontutan hartuta, urteko kostua ondorengoa da. Oinarrizko zerbitzua (4 tailer + irteera bat sasoiko, gehienez 25 bilera, tailer gehigarriak (6 gehienez), eta irteera gehigarria (3 urteko). Horrela, guztira, 15.365,89 euroko kostua dagokio gehienez urte bati.

5.taula: Kostua urteko

KOSTUA URTEKO	
3 garaitan 4 tailer eta irteera bat	11.951,76 €
Bilerak (gehienez 25)	1.279,25 €
Tailer gehigarriak (6 gehienez)	4.256,82 €
Irteera gehigarriak (3 gehienez)	3.438,09 €
Guztira	**20.925,92 €**

Ondorioz, honakoak dira kontratuaren parametroak 2 urteetarako:

6.taula: Kontratuaren parametroak

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua (2 urte)		41.851,84 €
BALORE ESTIMATUA (BEZik gabe)		**41.851,84 €**

BEZa		***10%***	***4.185,18 €***
AURREKONTUA GUZTIRA			**46.037,02 €**

Zerbitzuaren ezaugarrien arabera %10 BEZa jasoko du.

4. AURREKONTU- DOTAZIOA

7.taula: Aurrekontu hornidura

	2026	2027	2028	
Aurrekontua	7.828,14	20.925,92	13.097,78	**41.851,84**
Aurrekontua BEZarekin	8.610,95	23.018,51	14.407,56	**46.037,02**

Irunen, sinaduraren egunean.

Irati Tranche Otxandorena
Ekonomialaria
Hiri bultzada, Ekonomia eta Ogasun Arloa